Fundación "la Caixa"

Gida azkarra **2024**

**EUSKADI**



# 120 urteko *gizarte konpromisoa*

”la Caixa”, Kataluniako eta Balearretako Zahartzarorako Pentsioen Aurrezki Kutxa, 1904an sortu zuen Francesc Moragas Barret abokatu kataluniarrak, Kataluniako gizarte zibileko hainbat erakunderen laguntzaz.

Hasieratik, ”la Caixa” Fundazioaren ezaugarriak izan dira **gizarte konpromiso indartsu bat eta gizarte osoaren alde lanean aritzeko bokazioa**, bai bere finantza jardueraren bai bere gizarte ekintzaren bidez, hainbat eratako jarduerak finantzatu eta mantentzen dituztenak gizarte, hezkuntza, kultura eta zientziaren alorretan.

Gizarte arloko inbertsioaren bolumenari dagokionez, ”la Caixa” Fundazioa munduko fundazio garrantzitsuenetako bat da.

Egiturari dagokionez, ”la Caixa” Fundazioa **CriteriaCaixa**-ren jabe da, finantza *holding* bat, haren enpresa ondarea kudeatzeko eginkizuna duena.

Fundación ”la Caixa”

## Gizarte programak eta deialdiak

*Gizarte eraldaketa,* pertsona zaurgarrienen bizi kalitatea hobetzeko eta herritarren arteko bizikidetza sustatzeko programen bidez.

## Kultura eta zientzia

*Gizartea hobetzea,* kulturaren eta zientziaren bidez, hazkunde pertsonalerako eta gizarte kohesiorako tresna gisa.

## Hezkuntza eta bekak

*Hezkuntza* eta bikaintasunezko formakuntza bultzatzea, aurrerabidearen eta gizarte ongizatearen motor gisa.

## Ikerketa eta osasuna

*Ikerketa indartzea* eta berrikuntza bultzatzea, urratsak egiteko medikuntzan eta biziaren beste zientzia batzuetan.

% 100

CriteriaCaixa

**BANKU ZORROA**

CaixaBank

INBURSA Grupo Financiero

BEA

**INDUSTRIA ZORROA ETA ZERBITZUEN ZORROA**

Naturgy

Telefónica

Beste partaidetza batzuk

**HIGIEZINEN NEGOZIOA ETA BESTE FINANTZA AKTIBO BATZUK**

*2023ko abenduaren 31ko datuak*



# ”la Caixa” Fundazioaren *muina*

”la Caixa” Fundazioaren **misioa** da gizarte hobeagoa eta bidezkoagoa eraikitzea, eta aukerak ematea premia handienak dituzten pertsonei, hasieratik ardatz izan dituen **konfiantzaren, gizarte konpromisoaren** eta **erantzukizunaren** balioetan oinarrituta. Hori guztia gizartearentzat erreferentzia izateko **ikuspegiaz**, denboran iraungo duten irtenbideak aurkitzeari begira: kolektibo zaurgarrienen oinarrizko beharrei erantzuteko, gizartearen aurrerabidea bultzatzeko eta ikerketaren, bikaintasunezko formakuntzaren eta hezkuntzaren desafio berriei erantzuteko, zientzia eta kultura hurbilduz gizartearen segmentu guztiengana.

# *Konprometituak* pertsonen orainarekin eta etorkizunarekin

”la Caixa” Fundazioak arreta berezia jartzen du inpaktu eraldatzaile handiena duten programetan; hala nola haur pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurkako programak, enplegua sustatzen dutenak eta pertsona zaurgarrienen bizi baldintzak hobetzen laguntzen dutenak.

Gainera, ”la Caixa” Fundazioaren lana beste alor batzuetara ere zabaltzen da: ikerketa medikoa, bikaintasunezko formakuntza, kultura eta hezkuntza… dendenak oinarrizkoak aurrerabidea eta aukera berdintasuna sustatzeko. Gizarte hobeago bat eraikitzeko ”la Caixa” Fundazioaren gizarte konpromisoak Espainia eta Portugal ditu jardun eremu nagusi.

## Gizarte programak eta deialdiak



# *Gizarte eraldaketa* bultzatzen dugu

## Haur pobrezia

CaixaProinfancia programaren bidez sustatzen dugu gizarte bazterketa pairatzeko arriskua duten familietako 0-18 urteko haurren eta nerabeen gizarte eta hezkuntza garapena.

**420 erakunde kolaboratzaile baino gehiago**

**Lagundutako adingabeak:**
Programan, guztira, 2023an: **65.719**
Euskadin, 2023an: **1.064**

## Arreta integrala gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonentzat

Laguntza psikosoziala eta espirituala ematen diegu bizitzaren amaieran dauden pertsonei eta haien senideei.

Euskadin:
**3 talde 11 ospitaletan**

**Lagundutako gaixoak:**
Programan, guztira, 2023an: **40.222**
Euskadin, 2023an: **2.161**

**Lagundutako senideak:**
Programan, guztira, 2023an: **45.916**
Euskadin, 2023an: **1.646**

## Gizarte Proiektuen deialdiak

Elkarlanean ari gara irabazi asmorik gabeko erakundeekin hainbat egitasmo bultzatzeko gizarte zaurgarritasunean dauden pertsonentzat.

**Finantzatutako proiektuak:**
Programan, guztira, 2023an: **1.559**
Euskadin, 2023an: **55**

## Laneratzea

Lana aurkitzen laguntzen diegu lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonei, elkarlanean 532 gizarte erakunderekin.

**Lan kontratuak:**
Programan, guztira, 2023an: **46.603**
Euskadin, 2023an: **1.120**

**Enpresa kolaboratzaileak:**
Programan, guztira, 2023an: **16.692**
Euskadin, 2023an: **577**

## Adinekoak

Adineko pertsonen ondoan gaude, etekinik handiena ateratzeko hazkunde pertsonalerako haien aukerei, eta babes harremanak eraikitzen laguntzen diegu, bizitza betea izan dezaten, komunitatearekin konprometitua, eta isolamendua eta bakardadea prebenitzeko.

**Parte hartzaileak:**
Programan, guztira, 2023an: **477.591**
Euskadin, 2023an: **18.045**

**Jarduerak:**
Programan, guztira, 2023an: **17.496**
Euskadin, 2023an: **509**

## Gizarte Behatokia

Analisi eta gogoeta gune bat, gizarte ikerketa bultzatu eta oinarri zientifikoko ezagutza zabaltzen duena Espainian eta Portugalen.

2016an programa abian jarri zenetik:

**206 proiektuk jaso dute laguntza**

**242 argitalpen (dosierrak, artikuluak eta txostenak)**

## Nazioarteko lankidetza

Laguntzen dugu aukerak sortzen eta kolektibo zaurgarrienek pairatzen dituzten desoreken aurka borrokatzen, Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako herrialdeetan, hainbat alorretako programen bitartez:

- Enplegua sustatzea
- Munduko osasuna eta ikerketa
- Ekintza humanitarioa eta larrialdietarako laguntza
- Profesionalen formakuntza
- Nazioarteko lankidetza proiektuak, urteko deialdi baten bidez

2023an:
**41 proiektu 25 herrialdetan**
**700.000 onuradun baino gehiago**



# *Gizartea hobetzen,* kulturaren eta zientziaren bidez

## CaixaForum +

*Streaming* plataforma doan, espezializatua kultura eta zientzia edukietan (hainbat euskarritan erabilgarri: web, *Smart TV*, gailu mugikorrak eta tabletak).

**158.277 harpidedun**

**175.903 kontsumo ordu metatuak**

**1.439 edukiak**

## Arte garaikideko bilduma

Espainiako eta nazioarteko artisten obrak biltzen dituen Europako bilduma pribatu garrantzitsuenetako bat.

1985etik:

**195 erakusketa**
**1.069 artelan**
**446 artista**

## Erakusketak lurraldean

Erakusketa ibiltariak penintsulako (Portugal barne), Balearretako eta Kanariar Uharteetako hainbat hiri eta udalerritan barrena. Kultura tresna indartsua da pertsona guztien garapen pertsonalerako.

**Erakusketak:**
Programan, guztira, 2023an: **10**
(73 erakustaldi 68 hiritan)
Euskadin, 2023an:
**4 erakustaldi**

**Bisitariak:**
Programan, guztira, 2023an:
**3,8 milioi bisitari baino gehiago**
Euskadin, 2023an: **182.451**

## Musika

Kontzertuak, musika jarduerak, proiekzioak, errealitate birtualeko esperientziak eta beste hainbat proposamen, musika hurbiltzeko adin eta gizarte soslai guztietako pertsonengana, musikaz gozatzeko baliabide eta berrikuntza teknologiko hoberenen bidez, laguntzen digutenak musikaren mundua deskubritzen eta hura hobeto ulertzen.

**Kontzertuak:**
Programan, guztira, 2023an: **620**
Euskadin, 2023an: **1**

**Entzuleak:**
Programan, guztira, 2023an:
**115.916**
Euskadin, 2023an: **2.209**



# Mundu hobeago baterako *aukerak*

## EduCaixa

Programak, jarduerak eta baliabideak eskaintzen ditugu, haur eta gazteen ikasteko aukerak hobetzeko. Kalitatezko hezkuntza sustatzen dugu, irakasleak babestuz eta ahaldunduz, aldaketarako eragile eta gizarte eraldaketaren protagonista gisa.

Helburu gakoak:

- Ikasleei gaitasunak garatzen laguntzea.

  **Ikasle onuradunak / erabiltzaileak:**
  Programan, guztira, 2023an: **1.328.474**
  Euskadin, 2023an: **18.295**

- Irakasleen garapen profesionala bultzatzea.

  **Irakasle onuradunak / erabiltzaileak:**
  Programan, guztira, 2023an: **253.021**
  Euskadin, 2023an: **3.271**

- Ebidentziak sortzea eta transferitzea, hezkuntza praktiken ebaluazio eta zabalkundetik hasita, nazioarteko erakundeekin eginiko aliantzen bidez.

  **Eskola parte hartzaileak:**
  Programan, guztira, 2023an: **6.570**
  Euskadin, 2023an: **167**

## Bekak

1982tik, ikertzeko talentua eta bikaintasunezko formakuntza sustatzen ditugu munduko ikergune eta unibertsitate onenetan.

Gure bekek hartzen dituzte goi hezkuntzaren etapa guztiak (gradua, graduondokoa, doktoregoa eta doktorego ondokoa), eta bekadun berriak sartzen dira 6.000 pertsonak baino gehiagok osatutako talentu komunitate batean. Komunitate horretako kideek elkar aberasten dute aurrez aurreko eta online saioen bidez.

**Emandako bekak:**
Programan, guztira, 2023an: **255**

- **Graduko bekak: 50**
- **Graduondoko bekak atzerrian: 100**
- **Doktorego bekak Espainian eta Portugalen: 65**
- **Doktorego ondoko bekak Espainian eta Portugalen: 40**

Euskadin, 2023an: **9**

- **Graduondoko bekak atzerrian: 4**
- **Doktorego bekak Espainian eta Portugalen: 3**
- **Doktorego ondoko bekak Espainian eta Portugalen: 2**

## ProFuturo Fundazioa

Telefónica Fundazioarekin batera, haur eta gazteen hezkuntza sustatzen dugu Latinoamerika, Afrika eta Asiako lurralde zaurgarrietan.

Formakuntza eta laguntza ematen dizkiegu irakasleei, eta baliabide digitalak, hezkuntza arrakala txikitzeko.

2016an programa abiatu zenetik, ProFuturo Fundazioak lagundu die 4,2 milioi haurri baino gehiagori.

2023an:

**30 herrialde baino gehiago**
**1,2 milioi haur onuradun baino gehiago**
**5.473 eskola**

# Gaurko ikerketa, *biharko osasuna*



Biomedikuntza eta osasun arloko ikerketa eta berrikuntza bultzatzen dugu, ezagutzan oinarritutako mundu hobeago eta osasuntsuago bat eraikitzeko.

2023an:

**773 ikertzaile**

**1.245 artikulu zientifiko**

## Laguntza ikerketa eta osasun erakundeei

Ikerguneekin eta ospitaleekin elkarlanean dihardugu, ezagutza biomediko berria sortzeko eta gizartearen esku jartzeko.

**Lankidetza estrategikoa ikerguneekin:**

- IrsiCaixa, Hiesaren Ikerketa Institutua
- ISGlobal, Bartzelonako Osasun Globalaren Institutua
- VHIO, Vall d'Hebron Onkologia Institutua
- Barcelona Beta Brain Research Center - Pasqual Maragall Fundazioa
- Institut de Recerca Sant Joan de Déu

## CaixaResearch Ikerketa Osasunean

CaixaResearch Ikerketa Osasunean deialdiaren bidez, izaera filantropikoko Espainiako eta Portugalgo deialdi garrantzitsuena, bultzada ematen diogu gizartean inpaktua duen bikaintasunezko ikerketa zientifikoari, proiektu eraldatzaileak sustatzeko biomedikuntzan eta osasunean.

**Lagundutako proiektuak:**
Programan, guztira, 2023an: **28**

2018an programa abian jarri zenetik:

**170 proiektuk jaso dute laguntza**

**825 artikulu zientifiko**

## CaixaImpulse Berrikuntza Osasunean

CaixaImpulse Berrikuntza Osasunean programaren xedea da pazienteen esku jartzea laborategietan eginiko puntako ikerketa, produktu, zerbitzu eta enpresa berriak sortuz bizitzaren eta osasunaren zientzien alorrean.

**Lagundutako proiektuak:**
Programan, guztira, 2023an: **27**
Euskadin, 2023an: **3**

2015ean programa abian jarri zenetik:

**200 proiektuk jaso dute laguntza**

**99 patente berri**

**42 enpresa berri**

## CaixaResearch Institute

"la Caixa" Fundazioak CaixaResearch Institute babesten du, gaixotasunen immunologian espezializatutako zeharkako eta diziplinarteko ikergune nagusia Espainian.

2023an sortu zenetik:

- Innovation Hub-ari loturiko ikerguneen **6 berrikuntza proiektu** hautatu dira.
- Martxan jarri dira lehenengo **2 ikertaldeak**

# Enpresa ondarearen *kudeaketa* eredua

”la Caixa” Fundazioak bere enpresa ondarea kudeatzen du **CriteriaCaixa** filialaren bidez, ondare hori babestu eta handitzeko, helburua izanik erakundearen gizarte ekintza finantzatzea eta gizarte, asistentzia, kultura, ikerketa eta hezkuntza alorreko bere egitasmoen iraunkortasuna ziurtatzea.

CriteriaCaixa-ren lehentasuna da baliabide ekonomikoak jartzea, ”la Caixa” Fundazioaren gizarte ekintzak lanean jarrai dezan urtez urte **premia handienak dituztenei aukera gehiago emango dizkien gizarte** bat garatzeko.

Kudeaketa eredua oinarritzen da gardentasun eta etika printzipioetan, **konfiantzaren, gizarte konpromisoaren eta erantzukizunaren** balioetan oinarritutako prozeduren ardatz direnak, bai eta ingurune naturalarekiko errespetuan ere.




## ”la Caixa” Fundazioa, munduko, *fundazio handienetako* bat

2024ko aurrekontua:

**600 M€**

2024ko inbertsioen banaketa:

Gizarte programak eta deialdiak
**352 M€**

Kultura eta zientzia
**120 M€**

Hezkuntza eta bekak
**48 M€**

Ikerketa eta osasuna
**80 M€**

GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK

EXCELENCIA EUROPEA 500+ PUNTOS EFQM